

NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Sarrera-ekitaldian emandako hitzaldiak
Adiskide Numerarioa
MIGUEL ANGEL ELKOROBerezibar
Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso
Amigo de Número

Suplemento 26-G del Boletín de la RSBAP

BERGARA


2021-10-30



Umeen marrazketa lehiaketa Bergarako San Martin plazan,
Simon Arrietaren begiradapean, 1963an. (BUA)



Bergarako Arte eta Lanbide Eskolako sari banaketa,
1906-1917 tartean. (BUA)



Luis Elícegi, EAeko Presidentea Gipuzkoan
Presidente de la Real Sociedad Bascongada en Gipuzkoa



Miguel Angel Elkoroberezibar nuevo Amigo de Número
Adiskide Numerario berria



Luis Elícegi, Miguel Angel Elkoroberezibar y Jorge Askasibar



Luis Elícegi y Miguel Angel Elkoroberezibar



Bascongadako adiskideak, Bergarako alkatea eta Bergara Antzerki Musikala taldea

HARRERA HITZAK – PALABRAS DE RECEPCIÓN

JORGE ASKASIBAR

EAEko Adiskide Numerarioa

Amigo de Número de la Bascongada

Acabamos de asistir a la interesante y documentada Lección de Ingreso de Miguel Ángel Elkoroberezibar, en la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, hablando sobre Bergara pueblo de pintores, que a decir del historiador y crítico de arte Xabier Sáenz de Gorbea podríamos calificarla, “**Escuela Vergaresa del Paisaje**, sucintamente distinta a la más conocida del Bidasoa”, tal como expresaba en el catálogo de la Exposición Antológica de Simón Arrieta, celebrada en Bergara en 1980, y repetida en Donostia al año siguiente, donde tuve ocasión de verla.

Me corresponde pronunciar las palabras de recepción, que lo hago muy gustoso y agradecido, en mi doble condición de miembro de número de la Bascongada y de pariente de Miguel Ángel, ya que su padre Julián y mi mujer Arantza, son primos carnales, oriundos del caserío *Aitzkirri*, del barrio de Arantzazu, a un par de kilometros escasos de la Basílica.

No voy a referirme al extenso curriculum de Miguel Ángel, profesor e investigador, licenciado en Filología Inglesa, que podéis verlo resumido en el programa del acto y en la página web: xubi.eus.

Sin embargo, creo obligado resaltar su probada facilidad investigadora, no exenta de laborioso trabajo, en los diversos campos de la cultura; su capacidad de comunicación y el dinamismo demostrado en la promoción de eventos, conferencias, mesas redondas, presentaciones, etc., aspectos tan necesarios en una entidad como la Bascongada de los Amigos del País, necesitada de abrirse y proyectarse más aún, si cabe, en la sociedad.

Miguel Ángel, por su formación y ocupación, como profesor y responsable de Gestión de Sistemas en el Politécnico Easo de San Sebastián, al integrarse en la Comisión de la Bascongada en Gipuzkoa, a buen seguro será capaz de contribuir a impulsar las nuevas formas de transmisión del conocimiento, la sensibilidad medioambiental y los cambios de todo orden a los que nos vemos abocados de aquí en adelante: (Inteligencia artificial, digitalización, robótica, cambio climático, despoblación rural, cambio de modelo de producción y consumo, etc.)

Miguel Ángel, seas bienvenido a la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, necesitada de tu aportación, deseándote los mayores éxitos en las tareas y proyectos que vayas a emprender, sabedores de que tus logros serán los de la propia Sociedad, que en este momento te acoge.

Eskerrik asko eta ZORIONAK!!

Bergara 30 de octubre de 2021

**“GILTZA BATEN HISTORIA:
BERGARA, PINTORE HERRIA.
250 URTEKO TRANSMISIOAREN GAKOAK”**

MIGUEL ANGEL ELKOROBerezibar

Sarrera-ikasgaia / Lección de Ingreso
Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte

SEMINARIXOA – BERGARA
2021-10-30

Elkarteko Zuzendari jauna, Juan Bautista Mendizabal; Bergarako alkate jauna, Gorka Artola; Gipuzkoako Bascongadako batzordeko presidente jauna, Luis Elicegui; Adiskide numerarioa, Jorge Askasibar; mahaiko adiskide, Rosa Errazkin.

Familiakooi, lagunoi

Eguerdion

Bergarako Errege Seminarioan Elkarteko kide bihurtzea ohore handi bat da niretzat. Esker hitzak besterik ez ditut. Elkarteko kide guztioi, etorri zaretenoi eta streaming bidez jarraitzen ari zaretenoi, milesker.

Bergarako lurretan dauzka sustraiak harrera egingo didan lagunak, Jorge Askasibarrek. Beti gertu izan dut, beti prest, beti hitz zuzenak, beti elkarrizketa aberatsa, beti ikasten dut berarekin.

Aspaldiko partez *Mozkorra parregarri* operaren obertura berriaz entzuteak hunkitu egin nau. Bihotzez eskerrik asko lagunok. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrenean berrestreinatu genuen Bergarako udaletxeko batzar-aretoan eta emanaldi hark eta gero etorriko zirenek gerturatu ninduten Elkartera. Juan Bautista Mendizabal, Julian Serrano eta batez ere Harbil Etxaniz nekaezina izan genituen erronka hartan bidelagun. Zuei ere eskerrik asko.

Gure ama, Iñaki Irizar lagun mina, Miguel Okina, Ramon Aranzabal eta Jose Mari Larrañaga pintore lagunak gogoan.

Bergaran pinturari duintasuna dario, errespetuz tratatu izan da beti. Artista izatea erabakitzen duenak etxekoen babes ez ezik, herrikoen bultzada ere sentitu du urteetan zehar. Belaunal-

diz belaunaldi, nork erakutsi eta non ikasi izan du zaletuak; eskolan, estudioetan lagun artean, akademietan edo kalean. Bergarako hirigune historikoko eraikinetan artelanak ikusten dira, pintoreak kalera atera izan dira pintatzera eta gure etxe askotako paretak koadroz beteta daude. Inguruan ez dago beste herri-rik hainbeste pintore profesional edo afizionatu duenik eta gure artistak dira inguruko herrietako eskoletako maisuak. Ezaguna da gure pintoreen paleta garbia eta Bergarako grisek ez dute parekorik.

Imaginatuz ezazue orain dela 50 urte lagun talde bat herriko plazan. Halako batean, bi gazte hurbildu zitzaizkion talde hartako Agustin Amasorraini. Herriko artistek zeukaten merkatuko estudioa gustora joango liratekeela adierazi zien. Bi gazte haiek Abdon Juaristi eta Jose Mari Ugalde ziren. Euren lantegietan lana utzi eta pinturatik bizitzea erabaki zuten. Lasai igotzeko estudio-
ra esan zien Agustinek eta giltza bana eman zien. Goi-mailako pintoreak bilakatu ziren bi gazte haiek. Handik urte batzuetara, Juaristik berak beste gazte bati eman zion giltza, etorkizun opa-
roa izango zuen Bingen de Pedro artistari. Gauza bera egingo zuen Jesus Mari Lazkanok Manu Muniategiandikoetxea gaztea-
rekin. Ohikoa bihurtu zen atzetik zetozen artista berriei lekukoa ematea. Manuk berak aurrerago gaur egun Bergarako Artisten Elkarteko lehendakaria den Karlos Galarragari pasatuko zion Irizar etxeko ganbarako giltza. 40ko hamarkadan Simon Arrietak ere berdin egin zuen Lorenzo Askasibar eskultorearekin. Gaur egun herriko pintore askok Bolu auzoan dauzkate euren estu-
dioak, “Bergarako Montmartre”n. Askok besteen estudioetako giltzak dituzte, edozein momentutan euren kabuz haietara joa-
teko.

Zaletasunaren eta ezagutzaren transmisioaren eta eskuza-
baltasunaren ikurra da giltza hori, eta badu bere historia.

Bergarako testuinguru artistiko hau ez da gauetik goizera
sortzen. Aurreko artistek eta maisuek plataforma egonkor bat

sortzen jakin zuten. XVIII. mendetik, ikastetxeen, marrazketa-
edo pintura-akademien, herri-ekimenen eta udal-agintarien ar-
teko entente batek giro egokia eta praktika artistikorako beha-
rezko baliabideak bultzatu ditu.

1774an, Parisko doako Errege Eskolaren estatutuak eredu-
tzat hartuta, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek Bergarako
Marrazki Eskola sortu zuen, Peñafloidako kondea buru zuela.
Handik bi urtera ireki zen Errege Seminarioaren babesean ospe
handia lortu zuen, eta laster inguruko herrietako enpresek Se-
minarioko maisuak behar izan zituzten beren langileak treba-
tzeko.¹

Bascongadaren sorreraren xedeak berak arteen eginkizuna
azpimarratzen du, 1765ean Bergaran egin zuen lehen batzar
ofizialean adierazi zen bezala.

Arratsalde eta igandeetako ikastaroez zortzi hilabete irau-
ten zuten, eta ikasleak edozein klase sozialekoak ziren, hamalau
urtetik gorakoak, eta eskatzen zitzaaien gauza bakarria ikasteko
gogoia zen; ikasleek papera eta arkatza bakarrik ordaindu behar
izaten zituzten, eta hori doan izaten zen pobrezia-maila egiaz-
tatzten zutenentzat. Udan, eskola zabalik egoten zen bertara joan
nahi zuten ikasleentzat.

Urte horretan bertan sortu ziren Bilboko eta Gasteizko esko-
lak; Bergarakoarekin batera hirurak aitzindariak izan ziren Es-
tatuan. Lortutako arrakasta ikusita, sei urte geroago, 1780an,
eskola berriak ireki ziren Soraluzen, Donostian, Eibarren eta
Tolosan.

Marrazkia Seminarioko ikasketa-planetan egon zen lehen
urteetatik, eta zabaldu egin zen, eskaintza akademikoa handitu
egin baitzen 1845ean “Bigarren Hezkuntzako Gipuzkoako Goi

[1] RUIZ DE AEL, Mariano J. *La ilustración artística en el País Vasco. RSBAP y las Artes*. Ed. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz 1993. p. 204.

Institutua” izendatu zutenean edo 1850ean Industria Eskola sortu zenean. Zentroak 1851n “Bergarako Errege Seminario Zientifiko Industrialia” izena hartu zuen. Bi ikastetxe horietako ikaslea izan zen, adibidez, Marcial Agirre Bergarako eskultore ospetsua.

Bergara gun e intelektua eta kultura garrantzitsua bihurtu zen, baina Bigarren Karlistaldia Gipuzkoako Institutu Probinziala Donostiara eramatea ekarri zuen. Seminarioko irakaskuntza-jarduera gelditu egin zen 1880an Aita Dominikoen agindupean utzi zuten arte, bertan ikasketa-zentro bat ezartzeko baldintzarekin. Hauek indarberitu egin zuten, erreferentziazko ikastetxe bihurtuz. Hantxe ikasi zuen Ignacio Zuloagak bere lehen urteetan, eta hantxe piztu zitzaion pinturarekiko zaletasuna. Handik gutxira, fraide bati babarrun plater bat botatzea-gatik kanporatu zuten.

Seminarioa ez zen izan Bergaran marrazketa landu zen toki bakarra. 1880an domingotarrei utzi baino bi urte lehenago, beste marrazketa-akademia garrantzitsu bat inauguratu zuen Bergaran 1878an José Miguel de Olazabal margolari eta argazkilariak, Seminarioko inspektore laguntzaile eta marrazketa linealeko laguntzaile izan zenak. Udalaren osoko bilkuraren onarpen-aktaren arabera, horrekin “irakaskuntza publikoari omenaldia egin nahi zitzaion, herriko gazteriak irakaskuntza doan lor zezan, herritarrek hain faltan botatzen dutena [...]”². Seminarioko aretoetako batean emandako arratsaldeko eskoletara 52 ikasle joan ziren lehenengo ikasturtean, eta horietako bat Eustaquio Aguirreolea bergarra izan zen, 11 urte eskaseko gaztetxoa, urte batzuk geroago argazkilari, margolari eta eskultore ezaguna eta Bergarako Arte eta Lanbide Eskolako zuzendaria izango zena.

José Miguel de Olazabalen bideari jarraituz, 1899an Julián Veá-Murguía gasteztarrak beste marrazki-akademia bat ireki

[2] BUA. 01-C/096-01

zuen Bergarako udalak utzitako lokal batean, baldin eta erakundeak aukeratutako baliabiderik gabeko lau langilek eskoletara doan joateko aukera bazuten. Eskolak Barrenkale kalean ematen ziren.

Halaber, badakigu Eustaquio Agirreoleak eta Cayetano Bornek kale berean marrazketa-akademia bat zutela 1902an. Hurrengo urtetik aurrera, Agirreolea Arte eta Lanbide Eskolako maisu eta arduradun nagusia izango zen.

Agirreoleak zuzendutako Eskola 1903an inauguratu zenetik, ehunka ikasle igaro ziren bertako geletatik, hasiera batean Barrenkale kalean eta 1907tik aurrera San Martin Agirre Plazako merkatu berriko goiko solairuan. Merkatuko ikasleen zerrendan daude, besteak beste, Pablo Mendarozketa margolaria, Toribio Jauregi argazkilari bergararra eta Bergarako pintore eskola bultzatuko zuen Simon Arrieta.

1928tik aurrera, Ehungintzako Lan eta Lanbide Eskola Oinarritzkoa sortu zen, ordutik aurrera “Elementala” deituko zena, eta Arte eta Lanbide Eskola desagertu zen, nahiz eta auzotar talde batek eskatuta 1930ean berriro ireki zen, lehen hezkuntzako eskoletan ikasitakoa zabaltzeko eta, bestalde, Lan Eskolarako prestaketa-eskola izateko.

Gerra Zibila amaitzean, herrialdea utzi behar izan zuten artisten nekezia ekonomikoa, heriotza edo erbestea eta geratu zirenek bizi izan zuten barne-erbestea zirela eta, ia ez zen artearen eta edozein ekimen artistikoren hazkunderik izan. Erakunde asko geldirik daude, gerraren aurretik hain lan ona egin zuten irakasle asko falta dira, eta gazteek autodidakta izatea beste aukerarik ez dute. Zorionez, Bergarak bere irakaskuntza artistikoari leial jarraitu zion eta marrazketa-eskolak ematen jarraitu zuen akademia pribatuetan. Horietako bat Felipe Zumalaberena izan zen, Jose Miguel Zumalaberen aitarena. Jose Miguel Elementaleko matematika irakaslea eta Simon Arrietaren pinturan eragin handia izan zuen margolaria zen. Berari zor zaio, nolabait,

Arrietaren garai urdina. Felipe Zumalabek, bere aldetik, marrazketa lineal eta artistikoko akademia ireki zuen Barrenkale kaleko 5. zenbakian, 1945. urtetik aurrera Okinatar artistek estudioa izango zuten leku berean. Akademia 1939tik 1944ra arte egon zen zabalik. Maisua Arte eta Lanbide eskolan ere ibili zen, eta klaseetan parte hartu zuen, ikasleak zuzenduz.

1944ko urrian, Elementalak ateak ireki zituen berriro, gerra-ren etenaldiaren ondoren, eta horrek pixkanaka Arte eta Lanbide Eskola hustea eragin zuen, nahiz eta marrazketa artistiko eta linealeko klaseak mantendu ziren Okina anaaien eskutik.

1945ean, Bergarako Talde Artistikoa sortu berriak antolatutako lehen erakusketa erraztu zuen Elementalak. Erakusketa horren arrakasta handiaren ondoren, Bergarako Talde Artistikoak beste erakusketa bat egin zuen urte horretako urrian Elementalean, oraingoa parte-hartze handiagoarekin.

Artearekiko zaletasuna hezkuntzaren esparrutik harago zihoan, eta beste kolektibo batzuek ere sustatu zuten, hala nola elkarte gastronomikoeak. Sagarpe elkartearen kasua nabarmentzekoa da. 1952ko otsailean erakusketa bat antolatu zuen Elementaleko aretoan, 1951. urtearen amaieran herriko lehen artelehiaketa antolatu ondoren.

Lanbide Heziketaren eta bere ikastetxeen zeregina erabakigarria izan zen Bergarako sustapen artistikorako. 1952ko urte horretan bertan, Bergarako eta Arrasateko zentroek Lanbide Heziketako eskualdeko lehiaketa antolatu zuten; lehiaketara aurkeztutako diziplinen artean pintura ere bazegoen.

Artea beti egon da presente Elementalean; erakusketez gain, asko izan dira bertan egin diren euskal pinturari buruzko hitzaldiak, aurkezpenak, mahai-inguruak, koadro-forumak eta abar; bertako ikasle eta irakasle asko artistak izan dira eta zenbait irakasle margolari ezagunak ere bai. Aurten Bergarako Artisten Elkartearekin sinatutako akordioa izan da Elementalaren azken

ekimenetako bat. Akordio horren bidez, elkarteko 50 artistek 65 koadro utzi dituzte eraikin berriaren instalazioak apaintzeko, gure herrian pintura sustraituta dagoela agerian utziz.

50eko hamarkadaren hasieran, Miguel Altuna irakasle eta idazkariak eskolako ikasgeletako bat pintura-estudio gisa erabiltzeko aukera eskaini zion Simon Arrietari, artista Madrildik itzuli zenean. Bergarako pintorearen eta garapen artistikoaren bilakaeran keinu erabakigarria izan zen, Arrietak handik aurrera Bergara izan baitzuen helburu. Hamarkada batzuk geroago, keinu hori errepikatu egin zen artista beteranoen eta promesa gazteen artean, gaur egun arte iraun duen herriko artisten arteko elkarlanerako espiritu eskuzabala behin betiko finkatuz.

1960ko amaieran, Simon Arrietak, bere lagun Fernando Azkargortarekin batera, Herriko Artearen I. Erakusketa antolatu zuen, Bergarako giro artistikoa bultzatzeko helburuarekin. 20 margolarik, 3 eskultorek eta bertako zenbait marrazkilarik parte hartu zuten. Horren ondorioz, Bergarako Pintura Elkartea sortu zen, eta 1964an, Bergarako Udalaren bitartekaritzari esker, Arrietak lokal batzuk eskuratu zituen Zabalotegiko Dorrean, eta marrazketa eta pintura irakasteko erabili zituen. Lokal horiek garai bateko Arte eta Lanbide Eskola ordezkatu zuten. Fernando Azkargortak, Simon Arrietak, Miguel Okinak, Moises Egurenak eta abarrek eman zieten aukera artista gazteei. Oso eskuzabalak izan ziren beren maisu lanetan, belaunaldien arteko harremana sustatuz, eta marrazten eta margotzen irakasteaz gain, irakasten irakatsi zieten, haietako asko inguruko herrietan pintura-maisu izatera iritsiz.

1967an Bergarako Kultur Ekintza elkarteak sortu zen, Bergararen bilakaera kultural eta sozialerako berebiziko garrantzia izan zuena. Kulturaren benetako motorra izan zen Bergaran. Handik aurrera, Zabalotegiren pintura-tailerra kudeatzeaz arduratuko ziren, marrazki- eta pintura-ikastaroak finantzatuko zituzten, erakusketak, aire zabaleko pintura-lehiaketak, hitzal-

diak eta arteari buruzko solasaldiak antolatuko zituzten, eta 1993an *Ariz-Ondo* kultura-aldizkariaren bidez eta Pol-Pol Argazki Taldearen laguntzarekin Bergarako arte-ondareari buruzko azterlan bat argitaratu zuten.

1970ean, Bergarako margolariak Seminarioko areto batera pasatu ziren. Zabalotegitik alde egin behar zuten eta Seminarioko estudio zabal batean kokatu zituzten, telebistaren aretoan, sakristiaren atzean.

Bertan sortu zen Ortxinga Arte Taldea. Mendira, beste herri batzuetara, kostaldera, joaten ziren margotzera, aire zabaleko pintura-lehiaketetan parte hartzen zuten hainbat herritan, Debako Arte Eskolara bisitak egin zituzten... Oso aukera ona zen beste artista batzuk ezagutzeko. Erakusketak antolatu zituzten Bergaran. Hilean diru-kopuru txiki bat jartzen ere hasi ziren, arte-liburutegi xume bat sortzeko.

1972an merkatura itzuli ziren. “Verdury”a artearen tenplua eta hastapen-lekua izan zen. Artista ospetsuekin eta pinturan bere bidea egiten ari ziren gazteekin estudioa partekatu ahal izatea aukera paregabea zen pinturan murgildu nahi zuenarentzat.

1970eko hamarkadako lehen urte horietan, Bergarako “Juventudes parroquiales” taldearen lana nabarmendu behar da, marrazki- eta pintura-lehiaketa herrikoia antolatuz, eta Kultur Ekintzarekin batera, Bergarako Alondegi zaharrean marrazki- eta pintura-eskolak emanez zortzi eta hamalau urte bitarteko haurrei, Xabier Agirre eta Jose Luis Azkarate margolarien eskuetik. 120 haur baino gehiagok parte hartzen zuten.

1973an Mari Paz Alustizak pintura akademia sortu zuen 8 eta 13 urte bitarteko ikasleentzat. Ehunka gazte igaro ginen Zubieta kaleko estudiotik. Marrazkiarekiko maitasuna transmititu ziren, pintatzen hasteko ezinbestekoa. Talentuz betetako gunea zen hura. Gazte haietako batzuk artista bikainak bihurtu ziren.

1974an Bergarako Kultur Ekintzak eta Ortxinga Arte Taldeak aire zabaleko lehen pintura lehiaketa antolatu zuten. Mugarri bat izan zen, beste herri batzuetako artistak Bergarara etortzea erraztu baitzuen, herrian giro artistiko handia sortuz.

Urte hartako abenduan Bergarako artearen panorama irauli zuen hamabostaldi kultural bat izan zen, “Begarako Urrats berriak” ekimena. Kaleak kolorez, artez eta transgresioz bete ziren, Zumeta, Nestor Basterretxea edo Josean Artze bezalako sortzaileek zuzenduta. Zenbat marrazki eta eskulan egin ote genituen Ikastolako umeok Isabel Alonso andereñoarekin egun horietarako! Udaletxeko aretoan Euskal herriko goi-mailako artistekin pintura- eta eskultura-erakusketa bat ere inauguratu zen.

1976an, Bidekurutzeta kaleko 40an Eder-Gai Arte Aretoa inauguratu zen, hiru emakumeren ekimenez: M^a Carmen Otaolak, Begoña Garitanok eta Rosa Mari Larrañagak artea herrian zabaltzeko erronkari heldu zioten. Herriko artisten erakusketak antolatu zituzten. Haietako askok han egin zuten beren lehen erakusketa, Xabier Agirrek esate baterako, 1977an.

Bi hilabete geroago Pol-Pol Mendizale Taldeak erakusketa berezi bat antolatu zuen. 15 urteko gazte batek 18 koadro erakutsi zituen areto hartan. Jesus Mari Lazkano zen.

Urte horretan bertan sortutako Bergarako UNEDek ere berdin egingo du, goi-mailako erakusketak eta hitzaldiak antolatuz.

70eko hamarkadatik 80ko hamarkadara bitarte, Bergaran sortu zen mugimendu herritarra nabarmendu behar da; fenomeno hori oso garrantzitsua izan zen herriarentzat, eta eragin positiboa izan zuen praktika artistikoa sustatzeko. Herri baten beharrak identifikatzeko gaitasuna izan zen bere ezaugarri nagusia, eta horrek kidetasun-sentimendua sortu zuen herrian.

Artistei dagokienean, urteetan zehar kokagune ezberdinak ezagutuko dituzte pintatzeko. 1985ean merkatua itxi zen, be-

rehalako hondamendi arriskuagatik. Udalak lokal bat utzi zien artistei Irizar etxearen ganbaran.

1986an, Bittor Pozaren eskutik, Bergarako eta inguruko artistentzat erreferentzia izango zen lokal bat ireki zuten Mahas-terreka kalean, Nahikari kafetegia. 35 urtez mugimendu artistikoaren erreferente izan da, edozein adierazpen artistikoren plaza. Herriko pintore talde txiki baten proposamen bezala hasi zena, urte batzuk geroago, 300 artista baino gehiagori ateak ireki dizkien topagune bihurtu da, disziplina desberdinetako 400 erakusketa baino gehiago eginez; sortzaile berri askorentzat plata-forma eraginkorra izan da.

Gaur egun, herriko beste taberna eta kafetegi batzuek jarraitu dute Nahikariren adibidea. Eta horiekin batera, Laboratorium Museoak berak ere, eta zer esanik ez 2005ean inauguratutako Aroztegi arte-areto ederrak. Inaugurazio eguneko erakusketan 70eko hamarkada hasieran pinturara dedikatzeko lana utzi ostean merkatuko estudiora joateko giltza eman zitzaion gazte haietako baten koadroak zintzilikatu zituzten.

1994an Bergarako Kultur Ekintza desegin ondoren, 1995ean Bergarako Artisten Elkartea sortu zen arte plastikoak babesteko, sustatzeko eta hedatzeko, baina espazio propiorik gabe. Handik bost urtera inauguratu zuten Bolu auzoan bere egoitza, topaketa eta elkarlanerako, ikaskuntzarako eta esperimentaziorako.

Pintura eskola izateaz gain, haurrei eta helduei eskolak emateko gune gisa sortu zen (akuarela, sorkuntza artistikoa, haurrentzako artea, muralismoa eta serigrafia, besteak beste), eta, artistek espazio bat izatearen Bergarako tradizioari jarraituz, artistei txoko bat uzten zaie beren lana gara dezaten. Beartek Bergarako pintura mugimendua biltzen jakin du.

Begaratik pintore andana joan izan da beste herrietan antolatutako lehiaketatara edota azken aldian antolatu ohi diren Urban Sketchers saioetara. 30 artistekin betetzen dute Beart

Elkartekoek autobusa. “Zer gertatzen da Bergaran hainbeste jende etortzeko?” galdetzen dute beste herrietako artistek. Erantzuna erraza da, Bergara pintore herria da.

Orain dela sei urte, Simon Arrieta pintore bergararraren jaiotzaren mendeurrena gogoratuz, Bergarako zortzi pintoreekin mahai-inguru bat antolatu genuen Donostian. Saio hartara joateko ere autobus bat bete zuten Bergarako artistek. Donostia aldean bizi diren hainbat artista bergarar ere hurbildu ziren. Denera berrogei bat artista gainontzeko entzuleez gain. Lehen lerroan gazte bergarar bat zegoen, ez zen autobus hartan etorri, bere kabuz etorri zen. Saioa amaitutakoan hurbildu zitzaidan eta sarrerarako erabili nituen apunteak eskatu zizkidan. Pintatzea gustatzen omen zitzaion, muralak egitea batez ere. Interes berezia zeukan aurreko belaunaldiek egindakoa ezagutzeko. Harritu egin ninduen eta era berean poztu. Zer pentsatua eman zidan. Pintore guztiek argazki bat atera zuten areto hartan. Gazte hura ez zegoen pintore haien artean. Etorritako bidetik joana zen. Orduantxe erabaki nuen egunen batean Bergarako pintore eskolaren ibilbidea kontatuko nuela. Eta iritsi da eguna. Gerora jakin dut Beart elkartean bekadun izan zela gazte hura herriko beste muralista batekin batera; txoko bana ere izan zuten elkartean eta maisu lanak ere egin dituzte muralismoa erakutsiz. Egun hauetan komunikabideetan albiste izan dira hainbat hiriburutako eraikinetan egin dituzten mural ederrengatik. Argi dago, Bergarako pintoreen erreleboa ziurtatuta dago.

Eskerrik asko.